

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

CHRYSALLIS
EUSKAL HERRIA

Ane Pirata igerilekura joan da gaur. Patakonek, itsasoko pirata den arren, nahiago izan du lehorrean gelditu, igerian ez delako oso ondo moldatzen.

BAIETZ EGIN HIRU
TXILINBUelta SEGIDAN!



ARRAIN BAT
EMATEN DUZU URETAN,
LAIA!

ERAKUTSI NOLA
EGITEN DEN HORI,
ARTISTA!

EZ ZAITUT
ASKOTAN IKUSI
IGERILEKUAN,
NOR ZARA?

NI ANE PIRATA NAIZ. EZ NAIZ
ASKOTAN ETORTZEN, PATAKON NIRE LAGUNARI
EZ ZAIOLAKO URA GUSTATZEN.

BA GU MAIZ-MAIZ
ETORTZEN GARA ETA
GUREKIN ETOR ZAITEZKE
AURRERANTZEAN.





EZAGUTU
ZAITUZTEDANEAN,
BI NESKA ZARETELA
PENTSATU DUT

DUTXAN HARRITUTA
GERATU NAIZ LAIAREN ZAKILA
IKUSITA. ETA MUTILA DELA
PENTSATU DUT

ZAKILA=MUTILA
ALUA=NESKA

BAINA BEREHALA
KONTURATU NAIZ OKER NENGOELA.
LAI NESKA DA, ZAKILA DUEN NESKA.
HIRU NESKA GARA, BATA BESTEAREN
DESBERDINAK.

NI ZAKILA DUEN NESKA BAT NAIZ.
SEGURU EZ ZENUELA HALAKO INOR EZAGUTZEN ETA
HORREGATIK HARRITU ZARA. LASAI, EZ HASERRETU ZEURE
BURUAREKIN. SEGURU ZEOZER IKASI DUZULA GAUR.

IKASI DUT BADIRELA
ZAKILA DUTEN NESKAK ETA
ALUA DUTEN MUTILAK.

ETA NIK IKASI DUT ILE
MOTZA ASKOZ EROSOAGOA
DELA. IKUSI, NIREA JA
LEHORRA DAGO!



Batzuetan pertsona baten sexua (sentitzen duen sexua) ez dator bat jaiotzean genitalen arabera ezarritako sexuarekin. Badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak.



Ikerketa berrienen arabera, mila pertsonatik bat egongo litzateke transexualitate egoeran. Identitatea ez dago hankartean, buruan baizik.



Mutil edo neska baten identitatea ziurtasunez ezagutzeko, haurrak hizkuntza menderatzen duen arte itxaron behar da, bi urteren bueltan. Hortik aurrera, bidelagun izatea da aukeretan onena.



euskadi@chrysalis.org.es
Telefona: 685767790